

Iruñerriko txikiena, euskalduntzen aitzindari

Hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua berehala gertatu zen Etxauribar bailaran XIX. mende hasieratik aurrera. Eskualdeko euskalduntzean Etxauri udalerria da aitzindaria. 2001ean udalerriko haurren erdia baino gehiago euskalduna zen.

SAIOA LABAKA

JOSU ASTRAIN

NAFARROA ERDIALDEAN dago Etxauri, Iruñerriko eskualdean. Etxauribar izeneko bailara historikoan kokatua dago, Etxarri, Bidaurreta, Ziritza, Belaskoain, Ubani, Arraitza eta Zabaltza herrieekin batera. Arga ibaiak zeharkatzen du bailara osoa ipar-hego norabidean. 870 biztanle bizi dira bailara osoan, eta Etxauri da udalerririk jendetsuena; 567 pertsona bizi dira han. Nafarroako hiriburutik 15 kilometrorra dago, eta hango biztanle gehienak Iruñerriko beste herrietara eta Iruñera joaten dira lan egitera. Etxauri, bailarako udalerri nagusia bada ere, ez da inguruko merkataritza eta zerbitzu gunea, denda bakarra eta bizpahiru taberna baitaude bertan.

Miquel Gros i Lladós soziolinguista katalanak 2007an *Recuperación del euskera en Navarra* liburua plazaratu zuen, eta han Nafarroako udalerrietan euskarak 1986-2001 urte bitartean izan duen bilakaera aztertu zuen. Grosen arabera, XIX. mende hasiera arte, Iruñerria euskalduna izan zen, oro har. Handik aurrera etorri ziren aldaketak eskualdera, eta Etxauribar bailaran hizkuntzaren ordezkatzeko prozesua laster batean gertatu zela dio.

Etxauriko euskaldunen kopurua 1986tik 2001era bitartean ia hiru-



Etxauribar eskualdean azkar galdu zen euskara XIX. mende hasieratik. Gauzak aldatu dira: Etxaurin, 1986an %5,7 ziren euskaldunak, eta 2001ean %14,9. Batik bat haur eta gazteek berreskuratu dute euskara. Argazkian: euskarazko jolas tailerra Etxaurin.

koiztu egin dela azaltzen du Grosek bere ikerketan, eta berezitasun hori azpimarratu egiten du. Egileari bitxia iruditzen zaio, Iruñerri osoan biztanle gutxien duen ingurua izaki, euskalduntze prozesuan aurrendaria izatea. Era berean, nabarmentzeko iruditzen zaio udalerriak euskararekin izan duen kontzientziazio maila altu hori ere. Soziolinguistaren arabera, 1986an %5,7 ziren euskaldunak, eta 2001ean, berriz, %14,9.

Soziolinguistika Klusterrak eta Aztikerrek elkarlanean egindako euskararen datu estatistikoaren bitartez bat da Euskararen Datu-Basea, eta han topa daitezkeen azken datuen

arabera, 2001ean, haurren hizkuntza gaitasunari dagokionez, %54,5 dira euskaldunak, %14,5 ia euskaldunak eta %30,9 erdaldunak. Etxauriko 2-14 urte bitarteko haurretatik erdiek baino gehiagok euskaraz jakitea, berreskuratze ikusgarriaren adierazlea dela esan daiteke.

Etxaurin ez dago eskolarik eta hango haur gehienak D eredu eskaintzen duen Iruñeko Sanduzelai ikastetxe publikora joaten dira autobusez. Badira bi urte Orkoienko San Migel ikastetxeak D eredu eskaintzen duela Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, eta bertara ere hasi dira joaten haurrak. Egun, Etxauriko haurren %95ek ikasten dute D ere-

	1986	1991	1996	2001
Baskofonoak (euskaraz trebeziaren bat duena; ulertzea adibidez)	%12,5	%14,7	%17,8	%21,7
Euskaldunak	%5,7	%4,3	%10,6	%14,9

Iturria: Miquel Gros i Lladós; *Recuperación del euskera en Navarra*.

dago. Euskara Zerbitzuak euskara sustatu eta normalizatzeko programak diseinatu eta garatzen ditu; bai udal administrazioetan, baita osatzen duten udalek barne hartzen

duan. Oro har, Etxauriko gurasoek euskararen aldeko jarrera positiboa daukate; eta gero eta guraso gehiago dira euskaldun berriak. Datozen urteetan guraso bihurtuko den belaunaldia D ereduan ikasitakoa izango da hein batean, eta aurreikus daiteke honek guztiak haur euskaldun gehiago ekartzea. Euskararen aldeko kontzientziazioa gero eta handiagoa da herrian. Hala, euskararen aldeko katea luzatzen ari da, nolabait. Euskararen Datu-Baseko informazioaren arabera, 2001ean Etxauriko helduen %8,1 ziren euskaldunak eta %16,3 ia euskaldunak. 25-64 adin tarte horren hizkuntza gaitasunaren bilakaera ere positiboa da urtez urte. Etxauriko adinekoen taldea da, aldiz, 2001ean euskaldunik ez zuen talde bakarra.

Eremu mistotik euskaldunerantz

1986ko Euskararen Legearen arabera, Etxauri Nafarroako eremu mistoan dago. Eremu honetan euskara ez da ofiziala; baina, era berean, Administrazioan eta Hezkuntzan zenbait erabilera ofizial aurreikusita daude. Herritarrek, Administrazioari zuzentzeko garaian, euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dute, baina Administrazioa ez dago behartuta euskaraz jakitera, eta, hortaz, euskaraz erantzutera ere ez. Hezkuntzari dagokionez, berriz, derrigorrezko eskolatzean euskarazko adarrak sortzeko aukera egon badago, eskari nahikoa badagoela frogatuz gero.

Miquel Gros i Lladós soziolin-guistak Nafarroako udalerrien eus-

kararen egoera aztertzeaz gain, 1986ko Euskararen Legeak ezarritako eremuen banaketa ere aztertu zuen liburuan. Nafarroako Gobernuak hiru hizkuntz eremuen banaketa nola egin zuen azaltzean, laburki eta orokorki bada ere, hauxe zioen: euskararen ezagutza %10 baino gehiagokoa zuten udalak eremu euskaldunetan sartu zituela, %5 baino gehiagokoak eremu mistoan eta %5 baino gutxiagokoak erdaldunetan. 1986ko mapa linguistikoa berrikusi eta aldatu beharra dago, Grosen iritziz. 2001eko galdeketa eremu euskalduna datuak ikusirik, eremu euskalduna hegoalderantz mugitu beharko

Etxauriko 2-14 urte bitarteko haurretatik erdiek baino gehiagok euskaraz jakitea, berreskuratze ikusgarriaren adierazle da

litzatekeela ondorioztatzen du, eta kasu honetan Etxaurin euskarak ofiziala izan beharko lukeela ere gaineratzen du. Esan bezala, Etxaurin %14,9 ziren euskaldunak orain zortzi urte.

Euskara sustatzeko ekintzak

Etxaurik, Orkoingo, Oltza Zendeako eta Bidaurretako udalekin batera, Euskara Zerbitzua dauka, eta Orkoien zentralizaturik

dituzten udalerrietan ere. Programa horietako gehienak Nafarroako Euskara Zerbitzuaren Sarearen barnean dauden gainerako Euskara Zerbitzuekin batera egiten dira. Sentsibilizazio kanpainak egiten dira: haurren eta helduen matrikulazioetarako, transmisioaren inguruko kanpainak, Administrazioan euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta abar.

Etxauriko Udalaren politikak euskararen aldeko hautua egin izan du azken urteetan. Ahalegin berezia egiten da haurrentzat eta gazteentzat zuzenduriko jarduerak eta egitasmo kulturalak euskaraz izan daitezten. Esaterako, Etxauriko 3-12 urte bitarteko haurrek euskaraz eskaintzen den ludotekara joateko aukera dute; D ereduan ikasten duten hurrei zuzendua dago. Iruñerrian euskara hutsez eskaintzen den ludoteka bakarra da hau. Astean hiru egunez eta arratsaldean ere zabalik egoten da. Ludotekak haurrak jolastu ahal izateko eta ongi pasatzeko guneak izaten dira, eta euren trebetasunak, ahalmenak eta nortasuna garatzeko ere baliagarriak dira. Egitasmoaren xedeak euskara ikasgeletako lau horma artetik nolabait ateratzea eta jolasen bidez hizkuntza komunikazio-tresna ere badela ikusaraztea dira.

Berezia da Etxauriko kasua; izan ere, gisa honetako jarduerak bertan izaten baitute harrerarik eta erantzunik onena, inguruko udalerriekin erkatuz gero. ■

Babeslea: Zumaia Euskara Zerbitzua



Zumaia Udal
www.zumaia.net

Zumaian eta Euskal Herrian

euskar
txanpan

Foruen enparantza, 1
20750 ZUMAIA
Tel.: 943865025
Faxa: 943862456
euskara@zumaiaoudala.net
euskaratxanpan@zumaiaoudala.net